

Euskal Herritik mundu zabalera

Gure gizartean partaide diren beste hainbat kultura ezagutzeko tailerrak antolatu dituzte ikasleentzat

RG ZKI K: Juan Carlos Ruiz / RG ZKI PRESS

Arraza, kolore, kultura eta pentsaera ezberdinak dituzten pertsonen osaturiko gizarte batean bizi gara. Kultura anitzeko gizarte batean, alegia. Lurralde urrunetatik etorri eta gurean gizarteratu diren arren, biztanle askok beste kultura eta ohitura batzuk dituzte.

Ikasleek kultura horiek hurbiletik ezagutzeko tailerrak antolatu ditu Afrika beltzeko Kolektiboak, Hego eta Erdialdeko Amerikako Kolektiboak, Magrebeko Kolektiboak, Kamelamos Adikerrak Ijito Elkarteak, Mugarik Gabe taldeak eta Gipuzkoako SOS Arrazakeria taldeak.

Helburua «beste kultura batzuetatik datorren jendearekin hitz egin eta harremanak izatea» dela dio Karmen Marti SOS Arrazakeria taldeko kideak. «Azken batean, ikasleei gizarte plurikultural batean bizi garela erakutsi nahi diegu, ikus dezatela beste kultura batzuk badaudela eta elkarrekin bizi gaitezkeela», dio Martik.

12 urtetik 16 urte arteko gazteei zuzenduriko tailerrak dira. Bertan, arabiar mundua, Afrika beltza, ijitoen kolektiboa eta Latinoamerikako bizimoduari, ohiturei eta hizkuntzari buruzko hainbat argibide ematen dituzte, hain urrunekoak diren kulturak gertuagotik ezagut ditzaten.



Afrika beltza

- **Ohitura:** Txirikordak eramatea ohiko orrazkera da afrikarren artean. Ikasleek Afrikari buruzko galderak egiten zituzten bitartean, txirikordak egiten erakutsi diete.
- **Komunikazioa:** Esklabotzari buruz mintzatu dira. 1400. urtean Afrikan eta arabiar munduan egiten zen esklabo beltzen salerosketa, eta XV. mendean hedatu egin zen europarrak Amerikara heltzean. Esklaboak Afrikatik hartu eta hainbat lurraldetan saltzen zituzten.
- **Musika:** Afrikarrentzat musika, dantza eta kantuak ohikoak dira eguneroko bizitzan. Musikaren bidez komunikatzen dira, beren sentimentuak adierazten dituzte. Esklabotzarekin batera bere musika hedatu zen, eta musika estilo askotan nabari da afrikarren eragina. Tailerrean perkusioa jotzen irakatsi diete.

badakizu...



Zer da kometa bat?

Kometak izotzarekin edo gas izotzuarekin batzen diren har-kaitz txikiz eta hauts partikulaz osaturik daude. Eguzkiaren inguruan biraka ibiltzen dira, eta, Ilargiaren antzera, ortzitik zintzilik daudela dirudite. Nahiko geldo mugitzen direla dirudien arren, planetak Eguzkiaren inguruan mugitzen diren abiadura berean mugitzen dira kometak ere espazioan. Ez dira inondik ere arriskutsuak. Lurra, esaterako, Halley kometaren isatsetik pasa da eta ez da eragin kaltegarririk izan.